

Eta nolako euskera erabilli? Garbi-garbia? Gaur guztiz erdal-kutsuturik ainbeste tokitan erabiltzen dana? Ene ustez, bi geiegi oietatik aldendu bear dugu guztiok eta erdiko bidea artu; gauza guztietan bezela, ontan ere erdikoa onena baiteritzaigu. Idazleak erritarren eredia izan bear; beraz egokiena berak eta irakasleak iritzi batekoak edo antzekoak bederik izatea.

Ona orain, amaitzeko, zeazki eta labur, ukan ditzakegun *el-buruak*:

- 1) Gure Erri'ak beti EUSKALERRIA iraun dezala.
- 2) Gure errialde guztiak euskal-gogoz bete ta inguratu, euskaldun biurtuz.
- 3) Euskal-gogoa eusteko euskera erabiltzea, bide bakartzat arturik.
- 4) Euskal-kulturarako euskera noraezeko izanik, gure kultura guzti ori euskeraz eratzea.
- 5) Orretarako, euskera kulturazko-izkuntza biurtzea.
- 6) Ondorioz, pizkanaka-pizkanaka, Euskal'erri'ko irakasketa guztietan euskera sartzea; irakasteko *gaiaz* lenengo, ikasketa guztietarako *bidez* gero.

A. URRESTARAZU.

Euskaltzaindiaren erabakiak irakurtzen dira gero. Ona emen.

Erabakiak

1. *Batzarre onetara ekarriak izan diren lanak Euskera-n argitaruko dira, zenbaki bereizi larriago batean.*
2. *Bearrezkoa dugu erri bakoitzeko izkera eta erri-jakintza-erekiko monografiak prestatzea. Emen irakurri diren lan batzuk eredutzat ipiñi ditezke orretarako.*
3. *Biziro poztu du batzarrea Aita Zabala bertso-berriak biltzen egiten ari den lan aundiaren berri jakiteak. Dei egiten die, beraz, euskaldun guzteri orretarako eska lezakean edozein laguntza emateko. Laguntza zor zaie, orobat, Arantzazu edo beste gaierei buruzko kanta zaarrak biltzen ari diren Frantzizkotarrerri.*
4. *Gogoko luke batzarreak eliz-gizonen batek euskal-sermoien zati aukeratuekin lorategi bat osotzea.*
5. *Badaki batzarreak zenbait kultura-sailletan itzen eskas gabiltzala. Geroago, bear den garaiean, Euskaltzaindiak bere erabakiak ar ditzan, euskaldun ikasi guztieri eskatzen zaie, orretarako*

egokiera dutenean, gai oriek, bai itzez eta bai izkribuz, euskeraz erabiltzeko, erderara jo gabe, naiz ta nekagarriago izan.

6. *Atsegiñez ikusi dira saio-antzean euskeratu diren filmak, eta orien bidez euskeraren alde egin ditekean lan ederra. Gogoz ikusiko luke, beraz, batzarreak, magnetofonaren jabe diren euskaldun eta euskal-elkartasunak bide orretatik alegintzea.*

Jardunaldi ta eztabaida guzti auetan ikusi da argi ta garbi zenbait gaitan aritzeko itzen bear gorria dagoela.

Obe dugu euskera mordoilloan jardun burutaziñoak adierazi gabe ta ulergaitz utzi baiño, edo zeatz adierazi gabe.

Azkueren gorazarrez (Bilbon egin nai diren jaien berri eman da.

Gero Aita Iturriak irakurten du Arantzazuko sariketaren erabakia.

Arantzazuko euskal - sariketa

Arantzazu'ko Andre Mariaren urtea ospatzeko eratu dan sariketarako epaimaieko autatuak izan diranak, Antonio Arrue, Manuel Lekuona eta Luis Mitxelena jaunak, agertu diran idaz-lanak banan-banan irakurri eta aztertu ondoren, Agorraren amaseian Arantzazun bildurik, onako erabaki auek artu dituzte:

1) Olerki-saillean, lenengo saria, 1.000 pesetakoak, "Elorriko lorak" deritzanari ematea, eta bigarrena bosteunekoa "Tori Arantzazu" izenekoari. Egilleak: Gandiaga'tar Bitoriano Aita, Arantzazuko Prailea, ta Artola'tar Fernando, "Bordari".

2) Artikuluetan, lenengo saria, 1.000 pesetakoak, "Zotaletxe-ko artzaia" izena duenari, eta bigarrena "Euskal-sorgiñak eta Arantzazu" deritzanari. Egilleak: Urruzola'tar Estanislao eta Berasaluze'tar Sabin anaia gertatu dira.

3) Antzerti-lanetan bi lanik onenak, berdintsuak izanik 5.000 pesetako sari bakarra bien artean erdibanatzea erabaki dute. Antzerkien izenak, "Gabak zekarren eguna" eta "Mesederik aundiena". Egilleak Etzaniz'tar Nemesio eta Albisu'tar Anastasio jaunak, biak apaizak.

4) Olerkarien artean bertsolariak ere agertu diralako sari berezirik ezpadago ere orientzat, uste dute maiekoak ongi legokeala beste bi saritxo ipintzea, 500 eta 250 pesetakoak esate baterako. Lenbizikoa, "Arantzazu'ko Amaren edestitxoa" deritzana-